

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Iruña eta Tuterako inguruetakoko 8 osasun-zentro ekografiak egiten hasiko dira 2016an

Osasun departamentuak 135.000 euro inbertituko ditu zentro bakoitzeko ekografo bana erosteko, eta profesionalek prestakuntza espezifiko jasoko dute

Jueves, 14 de abril de 2016

Zortzi osasun-zentro, Iruñeko 6 (oraindik zehazteko daude) eta Tuterako 2, ekografiak egiten hasiko dira 2016an. Osasun Departamentuak lehen mailako arreta indartzeko hartu du neurri hori.

Horretarako,	135.520	euro
inbertituko	ditu,	zentro
bakoitzerako	ekografo	bana
erosteko.		



Osasun Departamentuak 8 ekografo erosiko ditu osasun-zentroetarako.

Era horretan, arreta-prozesua hobetuko da (gaixoen patologia posibleen aurrean duten kezka arintzea, kasu normalak eta larriak ez diren patologiak beste aurkikuntza batzuetatik bereiztea, prozesu jakin batzuk hobeto diagnostikatzea) eta sail arteko orriak zehaztasun handiagoz bideratuko dira ospitaletara; ondorioz, bideratze desegokiak eta itxarote-zerrendak murriztu egingo dira.

Gainera, espezialistek errazago egin ahal izango dituzte hurbilketa diagnostiko eta terapeutikoak, eta lehenago eta modu eraginkorragoan bideratuko dituzte gaixoak, diagnostikatutako patologiaren arabera. Izan ere, ekografoak jartzen dituzten zentroetako profesionalek prestakuntza espezifiko jasoko dute.

Bideratze-kopurua orain artekoaren erdia izango da

Mendillorriko osasun-zentroan egindako azterketa pilotu bateko emaitzen arabera, lehen mailako arretan era horretako miaketa-probak eginez, bideratze-kopurua orain artekoaren erdia izatea eta itxarote-zerrendak murriztea lor daiteke.

Emaitzak 100 ekografia egin eta gero (83 egun baliodunen ondoren) aztertu zituzten.

Ekografia horietatik guztietatik 91 arruntak izan ziren (itxaronaldia: 1,03 egun), 1 lehentasunezkoa (itxaronaldia: egun 1) eta 8 presazkoak (egun berean egin ziren). Zentro itundu horretan, aurrez, ekografia arruntak egiteko 36 egun itxaron behar izaten zituzten, eta lehentasunezko ekografiak egiteko 22 egun.

Aipatu 100 kasu horietako 36 bideratu zituzten arreta espezializatura.

Eta bideratutako horietako 19ren diagnostikoa bat etorri zen erabat. Horrek esan nahi du lehen mailako